

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2298

427/2023 EBAZPENA, apirilaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, Erdi-Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Erdi-Mailako Teknikaria kategoriarako (Elektromedikuntzako Erdi-Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikada dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 578/2023 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen, Erdi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Erdi Mailako Teknikaria kategoriarako (Elektromedikuntzako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, Erdi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Erdi Mailako Teknikaria kategoriarako (Elektromedikuntzako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan, data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko ekainaren 6a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 578/2023 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko ekainaren 6ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko ekainaren 6ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldezturik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2023ko ekainaren 6a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAr argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: ELEKTROMEDIKUNTZAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: ELEKTROMEDIKUNTZAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Bilbo-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Mantentze-lanak-Elektromedikuntza-Elektromedikuntza / Goizez-Ez espezifiko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe